



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Historian iltzatuta geldituko den egun hutsala

Dagoeneko jaio da. Mutil bat da. Gaur egun osoan zehar inposatu didaten presio mediati-koak nire burmuina alienatu du eta Londrestik begirada ematea helburu dudana zutabe hone-tan “Royal Baby”-aren albisteak ez aipatzea ez litzatekeela egokia izango iruditu zait. Londre-seko egunerokoan gailendu den berria izan da, inongo za-lantzarik gabe.

Zein friboloa, ezta? Bai, badakit.

Bulegoan telebista bat daukat aurrean. 24 orduz albiste-giak ematen dituen katea dago pantailan. Ezohikoa da, bai-na gaurkoan lauzpabost ordu bilerarik gabe ordenagailua-ren aurrean eman ditut, biharko prestatu behar dudana proposamen bat idazteko saiakeran. Azpitoluekin eta bo-lumenik gabeko imajinak nire aurrean. Denbora guztian jaio berri den hauraren albisteak ari dira erakusten. Etenik gabe. Mundua gelditu izan balitz bezala. Beste albiste guz-tiak bigarren plano batera pasatuz. Ezin dut telebista itzali. Okurritu zait behin baino gehiagotan altxatu eta hori egi-tea, baina nire inguruan go-go biziz tindatutako aipu batzuk entzun ostean, ekin-tza berekoa litzateke.

Ospitalearen aurrean ehunka pertsona bildu dira, goizean goizetik, haurra noiz jaioko zain. Ez dut ulertzen monarkismoa he-zurretaraino nola sartu da-kioken bati. Eta, alde prakti-koagoetara joaz, jende horrek ez al du lanik? Edo, aspektu filosofikoagoetan pentsatuz, benetan hori al da haien bizitzetako pizga-rria?

Zein izen jarriko ote dio-ten galdera diru asko hasi da mugitzen dagoeneko apustu etxeetan. Arthur da faboritua. Erresuma Batuko bandera bizkarrean duela, mikrofonoa hartzeko bo-rrokan dabilen emakume bat erabat grinatsu dago, bere semeak ere izen hori duelako; telebista ikusten

ari garen milioika pertsonoi datu hori axolako zaigula pen-tsatu du, noski.

Juzgatzen hasi naiz. Eta, ez du merezi fribolitateak juzga-tzerik. Noan lanarekin jarraitzera.

Telebistakoa imajinak sortzen didan distrakzioa ekidin nahian, irratia piztu dut eta aurikularrak belarran, propo-samena idazten jarraitu dut. Beti entzuten dudana katean ere albiste berdina dute kontagai. Kazetari bat elkarrizketatu dute. Ahotsarengatik eta bere ibilbide profesionalari egindako erreferentzia bat edo beste kontuan hartuz, berro-geita hamar urte inguru izango dituela ondorioztatu dut. Ingalaterrako familia errealearen haur baten jaiotzaren erre-portajea egiten zuen lehenengo aldia zen. Ilusionatuta zego-en, poztasuna nabari zitzaion.

Ondorengo bi urteetako estrategia ari naiz definitzen. Nola sortuko dugu esperientzia aberatsagoa bezeroen eta gure eskaintzaren artean. Nola aurreratu gaitezkeen bezeroen erabakietan eragina izatera. Edo nola erabili ditza-

kegun datuak erabaki ho-riek oraindik ere arrasto handiagoa utzi dezaten. Horrek guztiak milioika li-bera aurrezteko aukera emango dit. Horiek dira ni-re proposameneko gai na-gusiak

Hori guztia ere friboloa dela pentsatu dut. “Bene-tan” garrantzitsuak diren arazo guztien artean, ez du inongo desberdintasunik markatzen. Ingalaterrako eta Londresko historiara pasako den egun honetan, zein ekarpen eskasa egin dudana pentsatuz banao etxera. Biharko eguna nor-malagoa izango den itxaro-penez, telebistan eta irra-tian albisteak inposatuko ez dizkidaten egun bat. Eguzkia dago zeruan, uda-berria iritsi da Londresera. Udaberriak Londres berpiz-ten du. Horretaz hurrengo-an gehiago. •



«Royal Baby»-aren albisteak bolo-bolo dabil Londonen.

Jonh STILWELL | AFP